

ETA EGUNERO... demagun

(I)

LORE ARTEAN
sustraitutako zuhaitzak
ez du lehorterik ezagutzen,

LORE ARTEAN
sustraitutako zuhaitza
ez du antzutasunik nozitzen,

eta Txantxangorria
datorkionean
bihotza dio irekitzen

LORE ARTEAN
pausatutako txantxangorriak
ez du nekealdirik ezagutzen,

LORE ARTEAN
pausatutako txantxangorriak
ez du ekaitzarik nozitzen,

eta kantua mokura
datorkionean
bihotza dio irekitzen.

(II)

DEMAGUN...

goizean esnatzerakoan
Txantxangorriaren kantua
dudala entzun.

DEMAGUN...

goizean esnatzerakoan
Txantxangorriaren negarra
dudala entzun.

DEMAGUN...

Txantxangorria
herriaren bihotzetik
bere kumeei kantuka
dudala entzun

eta urrutian
eta haizearen magalean

burdinsarea
kantuaren azpian erortzen
dudala entzun.

(III)

DEMAGUN...

Francisco Javier Garmendia Arrieta

demagun... zeldako leihotxoaren bestaldean dagoen horma zaharra,
eta egunero... horma zaharra gaindituz irrintzi bat bidaltzen duela,
eta egunero... Santakruzetako sokamuturrean zezen aurrean korritzen duen
gaztearen irrintzia.

DEMAGUN...

Marivi Arrizubieta Oskoz

demagun... Bonxeko burdin erdoildua bustitzen duen euria,
eta egunero... euritantak aurpegiko azalean behera dituela,
eta egunero... ijurkoko kale grisak bustitzen dituen euritantak.

DEMAGUN...

Emiliano Viaña Balda

demagun... Ceutako gau lehorra,
eta egunero... gaueko ixiltasunea Los Rosaleseko presondegitik zabaltzen den
txalaparta
eta egunero... Altamirako gainatik bailara guztian zabaltzen den Txalaparta.

DEMAGUN...

Manuel Gonzalez Fernandez

demagun... Langraitzeko hormetako adreilu bihotzgabea,
eta egunero... adreilu bihotzgabea bere esku zimurtuekin ferekatzen duela,
eta egunero... Ijurko auzoko pareta mutuen adreilu gorria.

DEMAGUN...

Pello Cuesta Garmendia

demagun... Martuteneko zeldako leihoa
eta egunero... leihotik eskuak, begirada... ortzeruntz luzatzen dituela,
eta egunero... Jaizkibeleko magalerantz luzatzen dituela.

DEMAGUN...

Jose Ramon Zabaleta Garmendia

demagun... Caceres Ieko izotz antzua,
eta egunero... leihotxoan pausatutako izotz urtzen duen irrifar goxoaren beroa,
eta egunero... lagunen oroitzapenetan loratzen den irrifar goxoaren beroa.

DEMAGUN...

Juanito Trecet Sastre

demagun... Puerto de Santa Maria Ilko zeldetako ate mugigaitza,
eta egunero... ate mugigaitzaren atzean itxaropenaren keinua,
eta egunero... sotxoko bideziorretako hankapauso bakoitzean uztartzen den
itxaropena.

TXANTXANGORRI!!!

kanta ezazu urrutira
kanta ezazu zure kumeen bihotzera
eta zure mokotik darion kantuak...
eta zure kantutik darion ekaitzak...

distantzia du urratuko,
bakardadea du suntsituko,

EZ DU KATERIK EZAGUTUKO!!!

Lezon, 1992ko apirilaren hamaseian.
